Pipi Galtzaluze dendaz denda

Entzun audioa 2 aldiz

Pippi Galtzaluze dendaz denda

Pippi bakar-bakarrik bizi da Mozolomendi izeneko etxean. Baina ez pentsa gaizki bizi denik. Bai zera! Nahi duenean oheratzen da, eta nahi duenean joaten da eskolara.

Pippik bi maskota ditu: zaldi bat eta tximino bat. Baita bi lagun ere: Tommy eta Annika. Maleta zahar bat ere badu, urrezko txanponez betea.

Urrezko txanpon horietako batzuk hartuta, erosketak egitera joan da gaur Pippi, Tommyrekin eta Annikarekin batera. Denda asko daude hirian eta gaur jendez beterik daude denak. Haur batzuk gozoki-dendara joan dira. Baina haur gehienek ez dute dirurik eta kanpoan daude, erakusleihoko jaki gozoei begira.

–Sartuko al gara gozoki-dendan? –galdetu dio Tommyk Pippiri.

–Bai, goazen –erantzun du Pippik. Eta barrura sartu dira.

–Eman hamazortzi kilo pasteltxo –esan du Pippik, urrezko txanpon bat erakutsiz.

Saltzailea azkar-azkar hasi da pasteltxoak poltsa handitan sartzen. Baina Pippik hirurogeita hamabi karamelu-poltsa, txokolatezko ehun eta hiru barratxo, eta gozoki gehiago eskatu dizkio gero.

A zer litxarreria-festa egin duten! Pippik denda kanpoan zeuden haur guztiekin banatu du erositakoa eta ez da ezer ere sobera geratu.

–Goazen alboko dendara! –esan du Pippik.

Eta jostailu-dendan sartu dira denak. Pippik esku bete urrezko txanpon atera du sakelatik, eta haurrek jostailuak erosi dituzte. Denda ia hutsik geratu da!

Dendatik alde egin baino lehen, Pippik txilibitu bana erosi die haurrei. Kanpoan, han hasi dira denak txistu eta txistu, zarataka.

–Ixo! –esan die udaltzainak oso garratz. Eta etxera bidali ditu erositako jostailuekin jolastera.

ASTRID LINDGREN (moldatua)

erakusleiho: dendako salgaiak kale aldera erakusteko leihoa.

litxarreria: gozokia edo jaki gozoa.

txilibitu: putz eginda, txistu egiteko balio duen tresna.

Medialibu
Hiztegia.

Medialibu
Biografia.

LIVEWORKSHEETS